

STARTINNOVA: DIRU ITURRIAK

Diru iturriei buruz hitz egiteko faktore asko hartu behar ditugu kontuan. Zentzua duenez, diru iturri nagusia elektrizitatearen salmenta izango da, eta akzioen salerosketa ere erabiliko dugu. Hala ere, kontuan hartu beharko da, enpresa sortzeko momentuan inbertsio oso handia behar izango dugula eta hasieran lortutako etekinak oso txikiak izango direla. Inbertsio hori lortuko dugu gure poltsikotik ateratzen. Gure kasuan, taldekide bakoitza 1.000.000€ inbertituko du eta hasierako urtea zaila izan arren, proiektu hau luzerako proiektua denez ez dugu espero etekinik urte batzuk (2 urte) pasa arte.

Tximistak ezin ditugu kontrolatu, eta natura ematen digun energiarekin soilik lan egingo dugu. Horrek etekinetan gorabeherak ekarriko dizkigu, eguraldiaren arabera lan egingo dugulako. Enpresak edo beste bezero mota, gure programan inskribatu egingo dira gure energia erabili ahal izateko. Hau da, hilabetero tasa bat ordainduko dute, energia kanala irekita mantentzeko eta gure energia izateko.

Gure enpresa akzioetan bananduko dugu eta saldu egingo ditugu guk behar izango ditugun enpresariei, adibidez, garraio enpresak gure proiektua aurrera eramateko. Denboraren poderioz, gure enpresaren balioak gora egingo du burtsan eta egoera hori ikusita bultzatuko ditu bezero gehiagok gure enpresan inbertitu dezaten.

Donazioak gure enpresaren sektore garrantzitsu bat izango da. Nahiz eta gure enpresa, dirua lortzean oinarritu, sektore sozial bat izango du biztanleria parte har dezan proiektu ekonomiko-sozial iraultzaile honetan. Hori lortzeko, "crowdfunding" izeneko finantziazio metodoa erabiliko dugu. Nahi dutenek dirua emateko aukera izango dute, gure enpresaren sektore ekologikoa laguntzeko. Finantziazioak beharrezkoak izango dira, enpresak behar duen bultzada gauzatzeko.

Hauek izango dira diru-iturrien ehunekoak:

Energiaren salmenta	%70
Akzioen salerosketa	%25
Donazioak (crowdfunding)	%5